



## EILAS

# Gasteizko Udaletxeko hauteskundeetan



Duela bi urte Udaletxeko Haur Eskoletan egondako gatazkak lan esparrua gainditu zuen, Haur Hezkuntzako lehen ziklorako kalitatezko sistema publikoa pikutara bidaltzeko PPren asmoen kontrako borroka bilakatuz. Gatazka horretan **EILAS**eko afiliatuak lan handia egin zuten eztabaidan eta-eta eguneroko lanean. Zuk eman dezakezu horren fede.

Alkateak 2004ko dekretua ateratzerakoan jauntxokeriaz jokatu zuen eta harrez gero Udal Haur Eskolak ziurgabetasun eta zalantza betetako egoera bat bizi dute.

### Haur eskolen eredia dela eta...

- Zaila da Eskolak Udaletxeko organigrama zurrunean txertatzea.
- Udaletxeko beste talde politikoaren proiektuak ere ez dabil-tza PPren ereditik hain urrun.
- Eskola lan merkatuaren eta gurasoen lan beharren zerbitzura dagoen kontsumo ondasun bat bezala hartzeko joera dago.
- Haurren hezkuntz beharrak bigarren mailan gelditzen dira.
- Kalitatezko sistema publikoa garestia da eta erreferentzia berria "Haurreskolak" eredia izan behar da, nahiz eta honek hamaika hutsune izan.

### Lan esparruan

- Dekretuak hutsean utzi zuen jardunaldi arloan lortutakoa.
- LEP-k jarraitzen du zehaztu gabe.

0-3 zikloaren helburuei dagokionez anbiguotasunean oinarritutako egoera batean gaude. Sistema publikoaren zehazgabetasunak darama, orain bi urteko gelak irekitzera, orain Haurreskolak sortzera pribatuaren lehiakortasun desleialari aurre egiteko. Eta honen guztiaren gaineratik, Gasteizko familia askoren egoneza dago, egun beraien eskolaratze eskaera bete gabe dagoena.

Haur Eskolen suntsiketa saiakerak sortu duen frustrazioa eta amorruekin bat egiten dugu eta horri guztiari gehitu behar zaio( Udaletxeak egindako lan baldintzen murrizketa, Hezkuntza Sailaren aldetik gure kolektiboarekiko lan errekonozimendu falta, gure lanpostuen etorkizunerako zalantza...).

Ziurtasun osoa daukagu datozen urteak funtsezkoak izango direla 30 urtetako aintzintasuna daukan proiektuaren etorkizunerako.

- "Haurreskolak" taldearekiko konbergentziarantz joan.
- Proiektu propioarekin mantendu.
- Edota urratsak eman Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailera transferitzeko.

## EILAS

**EILAS**sek nahi du zu eztabaida hauetan egotea eta pentsatzen dugu erabakigune guztiak garrantzitsuak izango direla. Zure bozka eskatzera ausartzen gara Haur Eskoletako langileek ahots propioa izan dezaten Pertsonalgu Batzordean.

- Eskola Publikoaren alde.

- Kalitatezko Haur Eskola baten alde.
- Gure lanpostuen egonkortasunaren alde.
- Publikoko lan baldintzen homologazioaren alde.

**Bozka EILAS**  
Bozka ezazu gure hautagaia den  
Marta Ruiz de Azua *Izarrako Haur Eskola*